

# ¡SORDO!

---

IRUCHULOTAR USARIYUEN JOSTAKETA.

---

## IZKETA=MONÓLOGO.<sup>(1)</sup>

(Teloya edo Burtiña alchatzian, iruditegiyan sartuko da presaka norbaitek segitzen baliyo bezela.)

*(Izketan).* Non da! ni arrapatu arrek? ala dek bai! ja, ja, ja, ja, ederra pasa da gero! ja, ja, ja, ja. Eldu!! eldu!! ja, ja, ja, ja! jasta-kirtena!

Ateratzen naiz kafe Marinatik, *kafia*, kopak, zerbeza eta denak artu ta zigarro puru aundiya ezpañetan detala; an nua ſegara biziyan plaza; ordubanche jokatzen lenbiziko iriya, adar-motza, yayuago! kapa zabaldu eta salero batekiñ antziak *Sordo* beregana; ikusten naute eta beriala denak chaloka; jartzen naiz iriyaren aurrian ta *saz* suertia á la beronika, *saz* bestia á la.... *madalena*, gero bestia, eta bestia eta bestia; denak ojuka *biba Sordo*; *laja! laja! horro! korro!*, artzen naute erdiyan, ta *saz* beste suertia, ta bestia ta bestia; mundu guzia chaloka. ta farrez: jzer egiten det orduban, jartzen naiz belauniko iriyaren aurriañ toriatzalliai bezela, segituko etziralakuan *jbaña ká!* segitu ta artzen nau adar motzakiñ brekatik eta antziak *Sordo* jirabueltaka kanpan bueltakua bezela; denak chaloka, bibaka eta farrez.

(1) Estrenado con éxito extraordinario en la función euskara celebrada el 26 de Diciembre último por el Consistorio de Juegos florales de esta Ciudad en el Teatro Principal de la misma, y dicho con inimitable naturalidad por D. José Artola.

Sombrelluben billa nabillela, eltzen naute bizkarretik, begiratzen det atzera eta... *zapla* zeladoria; jartzen du chiminiya baña beltzagoko kopeta, eta ala diyo:

—Atoz nerekin.

—Ni zurekiñ, norá?

—Atoz nerekiñ, iriyak arrapatuko etzaituben lekura.

—(Ba, kartzelara). Tira ta bultza, ta bultza ta tira, an narama Boleneko ondoraño; gogor arrek eta gogor nik: ¿Baña nora eraman biar nazu, kartzelara iriyak arrapatu naubelako?

—Bai, an segurubago egongo zera iriyak jokatu artian.

—Eta zu, zeladore jauna. ¿Fraskuelo ta Kara-ancha ta ayek arratzian zezenak, zertan ez dituzu kartzelara eramatene?

—(Ala diyo). Ayek libre dute arrapatzia.

—Beraz ayek libre ta ni preso; ¿zer uste dezu zuk, ayek aña toriatzalle ez naizela? Orañ ere danik zezenik gaiztuena illko nuke nik.

—Zuk, nola gero?

—Gosiak.

Onla arigiñala emen dator beste zer ura, jnola kalietan ojuka ibiltzen da *Aviso al público!*, eta ala diyo eskuba bizkarrian pasiaz: baña *Sordo*, ¿beti orla izan biar aldezu? ¿eztakizu bada autoridadia errespetatu egiñ biar dala?

—Eta zer! iriyak arrapatu naubelako, justiziari faltatzia alda? Zuk bai arren alde itz egiten dezu au (biatzez egiñaz) ematen dizulako; zuri kalian ojuka ibiltziagatik pagatu egiten dizute, eta nik bulla piška bat egiten badet, kartzelara, iriyak arrapatzen banau, kartzelara, arrapatzen ezbanau kartzelara, oraindik seguru nago, alkatia miñez jartzen bada, kartzelara... zaudezte, zaudezte, ni agintzen jartzian pagatuko nazkitzute denak.

Zeladoriak farrez ala diyo, *basta Sordo, basta da*, eta atoz nerekin onian.

—Guazen bada, baña berso bat lenbizi bota ta.

—Zer berso ta zer danboliñ, guazen, gizona, guazen.

—Bai, bat bakarra botako det, bat bakarra, ara.

Plazan gaur artu arren  
zubengatik lotsak,  
oraiñ arkitutzen naiz  
kontentu ta pozak;  
eskerrak zitubela

adar biyak motzak,  
 baldiñ izan balitu  
 chiripaz zorrotzak,  
 aterako zizkiran  
 breka-peko otzak.

Zeladoria farrez puskatzen, eta ni berriz zai, tarte bat noiz arrapatuko niyon itzul egiteko.

—Guazen *Sordo*, guazen, berriz ere zeladoriak.

—Ez, beste bat bota ta.

—*Bueno*, azkenekua ta akabo.

—*Korriente* (au zuretzat esan niyon).

Gaur artsaldian libre  
 uzten banazu zuk,  
 alkate izatia  
 logratuko dizut;  
 Madrillen ezaguera  
 chit audiayak ditut,  
 eta esku azpitik  
 emango dizkitzut.  
 zazpi milla errial  
 izaten baditut.

Zeladoria baba dariyola farrez ja, ja, ja, ja, eta esaten diyot, begira, balkoiyortan daguen dama ere farrez algaraz dago; egiya zalakuan jartzen da gora begira izokiyura, eta orduban an niak korrika, chimista baña azkarrago; ikusi nindubenian, segitzen dit, nik korri eta zeladoriak korri; ontan iya iya arrapatu nindubela, trabatzen naiz zakur audi batian eta an giatzik loitan zilipurdika, ni ta zakurra eta zeladoria eta danak; nere larriyartan alchatzen naiz ta korri berriz; zakurra chiliyoka, zeladoria batera, chapela bestera, esku makilla bestera eta gizarajua dana loiz betia.... Oraiñ ibilliko da ura ~~mañ~~ ill ona nere billa! ¡baña arrek *Sordo* arrapatu! ezta zaldi gañian jartzen... ¡oi, ona bera!!

(Iruditegitik itzulitzen da korrika eta ontan zeladore bat chit presaz pasatzen da batetik bestera, norbaiti segitzen baliyo bezela.)